## (I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Batixtak nolako Españolarekin egiten du bidea
2. Batixta beldur dea hartaz? Zertako?
3. Zer egiten du bidean eta zer du gogoan?

## (II) TORI DRAGO BAT 2

Hainbertzenarekin, Españolak erraiten dio:

—Prantses horiek... dena espantu zarete!... Mila kemoñioa, non dago Españolak bezalako gizonik? Parise zer nahi badela! Parise edo Marise, hogoi mila Españolek ez othe lukete hartuko?...

Batixta, nahiz Parisez guti kilikatua, hortzak hirrikan[2] zagon, ezpainak mehe mehea. Zer lorietan aurthik lezakeen, hatzez gora[3], mandozain gaizki ikasia! Bainan makila txar bat baizik ez du eskuan, eta Españolaren begitartea Moro baten begitartea bezein beltza da; puñala ere ez duke urrun, gerrikoaren ezpian. Zer egin beraz?... Geroxago ikusiko. Anhartean, gogoaren kontra, irri zuri batekin ihardesten dio mandozainari:

—Hogoi mila Españolek? Bai eta hamabost milek ere!

Español zozoa loriatzen da, eta mandoa geldiarazirik, zahagitik beretik emaiten dio edatera Batixtari:

—Tori drago bat ona, amigo!

Batixtak bere kexuaren iresteko, eta ere... zintzurraren leguntzeko, klikatzen[4] du arnoa, bere buruarekin erasian:

—Ago demuntren koko[5] beltza, ago! Hireak harturik behar duk, gaur oraino!

Urrunago, *Luzaideko* erreka itsusien ondoan, berriz ere erraiten dio Españolak:

—Bordele edo Mordele, hamabost mila españolek ez othe lukete beretuko?

Oi, Batixtaren errabia! Balitz *Pekotx* aldean, edo han nunait, Frantzian! Bainan, ez, Espainiako zokorik itsusienetan da, gau bethean orai, eta mandozain demonioaren begiek dir dir dir egiten dute ilhunbean! ihardesten du beraz, bethi irri maltzur berarekin:

## (III). ADITZ IKHASKUNTZA.

31. Ez othe lukete 32. Zer lorietan aurthik legakeen
33. Ez duke urrun 34. Ago demuntren koko
35. Hireak harturik behar duk.

### 31. UKAN. Conditionnel Présent. dérivé de Ukan

| Objet singulier | Objet pluriel |
|---|---|
| Nik nuke = je l'aurais | N. nituzke = je les aurais |
| Hik huke = tu l'aurais | H. hituzke = |
| Zuk zinuke = vs l'auriez | Z. zituzke = |
| Harek luke = il l'aurait | Ha. lituzke = |
| Guk ginuke = ns l'aurions | G. gituzke = |
| Zuek zinukete = vs l'auriez | Z. zituzkete = |
| Heiek lukete = ils l'auraient | He. lituzkete = etc. |

### 32. UKAN. Conditionnel Futur dérivé de IZAN.

| Objet singulier | Objet pluriel |
|---|---|
| Nik Ukan nezake = je l'aurais | Ukan nitzake = je les aurais |
| Hik -"- hezake = | -"- hitzake = |
| Zuk -"- zinezake = | -"- zitzake = |
| Harek -"- lezake = | -"- litzake = |
| Guk -"- ginezake = | -"- gitzake = |
| Zuek -"- zinezakete = | -"- zitzakete = |
| Heiek -"- lezakete = etc. | -"- litzakete = etc |

### 33. UKAN. Potentiel Présent.

| C.D.S | C.D.P. |
|---|---|
| Nik duket = je peux l'avoir | dituzket = je peux les avoir |
| Hik dukek/n = tu peux l'avoir | dituzkek/n = |
| Zuk dukezu = vs pouvez l'avoir | dituzkezu = |
| Harek duke = il peut l'avoir | dituzke = |
| Guk dukegu = ns pouvons l'avoir | dituzkegu = |
| Zuek dukezue = vs pouvez l'avoir | dituzkezue = |
| Heiek dukete = ils peuvent l'avoir | dituzkete = etc |

### 34. EGON. Impératif.

(Hi) hago = reste
(Zu) zaude = restez
(Hura) bego = qu'il reste
(Gu) gauden = restons
(Zuek) zaudete = restez
(Hek) beude = qu'ils restent